

## I. XEDAPEN OROKORRAK

### ESTATUKO BURUZAGITZA

**11870** *Huts-zuzenketa, lege honena: 7/2021 Legea, maiatzaren 20koa, Klima Aldaketarena eta Trantsizio Energetikoarena.*

Hutsegiteak ikusi ditugu Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren maiatzaren 20ko Legean. Lege hori *Estatuko Aldizkari Ofizialaren* 2021eko maiatzaren 21eko alean, 121. zenbakikoan, argitaratu zen, eta honen bidez hutsen zuzenketak egiten ditugu:

14. orrialdean, 3. artikulua 2. apartatuan, hau dio: «2. 2050. urtea baino lehen, eta, edonola ere, ahalik eta eperik laburrenean, Espainiak neutraltasun klimatikoa lortu beharko du nazioartean onartutako konpromisoak betetzeko, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoen eskumenak. Eta sistema elektrikoak jatorri berriztagarriko sortze-iturriak baino ez ditu izango oinarri». Baina hau esan behar du: «2.- 2050. urtea baino lehen, eta, edonola ere, ahalik eta eperik laburrenean, Espainiak neutraltasun klimatikoa lortu beharko du nazioartean onartutako konpromisoak betetzeko, eta sistema elektrikoak jatorri berriztagarriko sortze-iturriak baino ez ditu izango oinarri, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoen eskumenak.

42. orrialdean, azken xedapenetako bederatzigarrenean, Energia Nuklearrari buruzko apirilaren 29ko 25/1964 Legearen 38 bis artikuluan egindako aldaketan, hain zuzen, laugarren lerroan, hau dio: «... Empresa Nacional de Residuos Radioactivos, SA, SME (Enresa)...». Baina hau esan behar du: «... Empresa Nacional de Residuos Radioactivos, SA, SME (Enresa)...».